



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Zientzi Politikarako Zuzendaritza
Berriazko Ikerketa

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Dirección de Política Científica
Investigación Específica

IKERTZAILEAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAK
2008ko deialdia. 2009 urterako

A
DOKTOREGO AURREKO EREDUA
AE/AK

ESKABIDEARI BURUZKO OHARRAK

ESKATUTAKO AGIRIAK, DOKUMENTU MOTA ETA AURKEZTEKO ORDENA
AUKERATUTAKO MODALITATEAREN ARABERA
(AE edo AK)

2008KO DEIALDIA.2009 URTERAKO	AE	AK	DOKUMENTU MOTA
1.ORRIA -ESKABIDE INPRIMAKIA - normalizatua	*	*	a
- EAEn Errolda-egiaztagiria	*	*	a
- Goi-mailako ikasketak egiteagatik beste Erkidegoan (Enbaxadan) Errolda-egiaztagiria	(*)	(*)	a
- Egoitza Baimena EAEn erroldaturik dauden atzerrikoentzat	(*)	(*)	e
2.ORRIA-LABURPEN INPRIMAKIA - normalizatua	*	*	b
-Espezialitate titulu edo egiaztagiria ofiziala (MIR,FIR,BIR,QUIR,PIR,besteak)	(*)	(*)	c
-Matrikula gastuen estimazioa eta dokumentazio ofiziala (AK-koentzat)		*	a
3.ORRIA-ESPEDIENTEA AKADEMIKOA inprimaki normalizatua	*	*	b
-Espediente Akademikoaren egiaztagiria	*	*	c
-Titulu homologatua edo Titulua homologatzeko bidean dagoelako egiaztagiria (MECKoa)	(*)	(*)	c
- Atzerriko espediente akademikoaren itzulpena EAeko hizkuntz koofizial batera	(*)	(*)	c
4.ORRIA-CURRICULUM VITAE normalizatua	*	*	b
5.ORRIA-IKASKETEN PROGRAMAREN ZUZENDARIAREN DATUAK eta PROIEKTUAREN ZUZENDARIARENAK (eta balegokio KOZUZENDARIARENAK) inprimaki normalizatuan *fotokopiatu 5. orria behar bestetan	*	*	b
- Ezarpen zentruaren onarpen eskutitza	*	*	b
- Prestakuntza Programaren txostena	*	*	b
- Ikerketa Proiektuaren txostena	*	*	b
6.ORRIA-DATUEN ALTA INPRIMAKIA normalizatua	*	*	a
- NANaren / EB-eko dokumentu baliokidearen/ Pasaportearen fotokopia	*	*	d

DOKUMENTU MOTA

- a: Jatorrizkoa.*
b: Jatorrizkoa eta 4 kopia
c: Jatorrizkoa (edo kopia konpultsatua) eta 4 kopia
d: Fotokopia
e: Kopia Konpultsatuta
() Jasotako kasuetarako bidali beharreko dokumentazioa*

IKERTZAILEAK PRESTATZEKO LAGUNTZEN PROGRAMAK.
2008KO DEIALDIA. 2009 URTERAKO.
LAGUNTZEN ESKABIDEAREKIKO OHARRAK

OHAR OROKORRAK

Liburuxka honek, Ikertzaileak Prestatzeko Laguntza eskuratzeko aurkeztu behar duzun eskabidea betetzeko, argibideak emango dizkizu.

Eskabidea betetzen hasi baino lehen, komeni da, deialdia batzen duen Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarena, irakurtzea. Berau, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net webgunean aurki dezakezu, Bekak, laguntzak eta dirulaguntzak atalean, berariazko ikerketa puntuan; zalantza askoren erantzuna, Aginduan bertan aurkituko duzu.

Proposamen on bat prestatu

Zure karrerako epealdirik garrantzitsuenetarikoa eragina izango duen proposamena prestatzen ari zara eta ondo prestatzeak merezi du. Atsegin duzun ikertzaileen prestakuntzarako programa, proiektua, aukeratzen saia zaitez, eta ondo garatua aurkeztu. Zure proposamenak, batez ere, zure gustokoa izan behar du.

Halaber gogorarazi nahi dizugu, Ikertzaileak Prestatzeko Laguntza baten eskatzailea zarenez gero, zeure formakuntzarako proposamen argiak adierazteko ardura zeurea dela. Egiten duzun eskariak ez badu betetzen guztiz zure nahi profesionala, edo ez baduzu libreki aukeratzen, behin onartua izanez gero ezin izango duzu oinarritzkoan aldatu.

Zure konfidantzako gainbegiralea (tutorea/zuzendaria) aukera ezazu, epealdi honetarako dedikazio nahikoa emango dizuna. Kontuan izan, zure karrera profesionalean eraginik haundiena izango duen pertsona izango dela.

Berariazko Aholku Batzorde batek zure proposamena aztertuko du eta ondoren elkarrizketa izango duzue proposamenari buruz mintzatzeko. Ebaluaziorako batzorde hauen betebeharra zure proposamena finantziatua izan dadin gomendatzea izango da, proposamenaren bideragarritasunean oinarrituta. Horretarako kontuan izango du, bai proposamenaren aurretiaz egindako balorazioa eta baita elkarrizketaren balorazioa. Beraz zure eskabidea besteeikiko baldintza berberetan baloratua izan dadin, garrantzitsua da Zientzi Politikarako Zuzendaritzak eskatzen dizkizun agiri guztiak aurkeztea, adierazitako epean eta moduan.

Berariazko Aholku Batzordearekin izango duzun elkarrizketak, zure proposamenari buruzko iritziak jasotzeko ere balio izango du. Izan ere, ebaluatzaileak zuri laguntzeko egongo dira. Ebaluazio negatiboak, gure ustetan, proposamena hobetzeko baliogarriak izan daitezke, eta ez dira deskalifikaziotzat hartu behar. Hainbat aldiz, ebaluazio negatiboek lagundu izan dute proposamena berbideratu ahal izateko, hurrengoan emaitza onak lortuz.

Eskabideetarako, hirugarrenek inongo ordezkariarik izatea ez du aintzat hartuko Zuzendaritza honek. Eta eskatzaileari buruzko informazioa hirugarrenei ez die emango, hala espreski eskatzaileak agintzen ez badu.

Bestelako informaziorik behar baduzu ondorengo helbide elektronikoan edo telefono zenbakian izango gaituzu zure esanetara:

emaila: huisl033@ej-gv.es
Tel. zbkia: 945 01 82 96 - 945 01 82 97
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

ESKABIDE ORRIEN AURKEZPENA

- 1.- Eskatzaile bakoitzak, eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du deialdi honetan.
- 2.- Eskabide-orriak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabetekoa izango da.
- 3.- Gogorazi nahi da zentru edo administrazio bulegoetara zuzendutako eskaerak edo inprimakiak, Estatuko Posta eta Telegrafo Elkartearen Bulegoek ere hartu ahal izango dituztela, beti ere kartazala zabalik aurkeztuz gero, Posta funtzionariak data eta zigiluak ipin diezazkien (eskaerak edo inprimakiak baliოდunak izateko data eta sigiluak beraietako baten gainean joan behar dira eta ez bakarrik kartazalean). Enbaxaden eta Kontsuletxeen bidez ere izepidetu ahal izango dira eskaerak eta inprimakiak.
- 4.- Eskatzailearen batek Zientzi Politikarako Zuzendaritzan edo Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan eskaera pertsonalki aurkezterakoan, sarrera dataren agiria jaso nahi izatekotan, eskaera orriaren kopia bat ekarri beharko du, bertan data eta sarreraren zenbakia erregistratzeko.
- 5.- Kontuan hartu zenbait dokumentazio BOST KOPIAZ eskatzen dela, Berariazko Aholku Batzordekideei kopia bana bidaltzen baitzaie, eskatzaileekin edukiko dituzten elkarrizketak egin aurretik, proposamenaren aurre balorazioa egin dezaten. Deialdiko oinarrietan eskatzen den kopiaren bat faltako balitz, eskabidea betegabetzat hartuko da, eta huts horiek, dagokion jakinarazpena egin ondorengo hamar eguneko epean bete ezean, eskarian atzera egindatzat hartuko da, aurrez Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak horretarako ebazpena eman beharko du.
- 6.- Eskatutako agiri guztien jatorrizkoak, inprimaki normalizatuak barne, inprimaki hauek dituen karpeta barruan bidali (internetetik jaisten direnak salbu), kanpoan eskatzailearen **izen-abizenak** eta aukeratutako **arloa** eta **modalitatea** zehaztuz (AE, AK).

Eskatzen diren agirien kopiak, lau txosten oso eta bereiztutan banaturik aurkeztu. Karpeta eta txostenok, sobre baten barruan bidali deialdiaren oinarrietan zehazten den helbidera. Ohar hauen hasieran agertzen den "ESKATUTAKO AGIRIAK" taulan finkatzen den ordenean bidali dokumentazioa, bai karpeta barruan datorrena, bai txostenetan banatutakoa.

BERARIAZKO OHARRAK

- 1.- Ikasketa espedienteak ORIGINALA ala KOPIA KONPULTSATUA izan beharko du. Zientzi Politikarako Zuzendaritzak, zein Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzek, konpultsak egingo dituzte baldin eta eskabidea bere bulegoetan aurkezten bada.
 - 2.- Errolda-egiaztagiriak, Udalak egungo datarekin luzatutakoak, Udal-Eroldan **alta data** jasota ekarriko du. Lehenago EAEn erroldaturik egon diren eta orain goi-mailako ikasketak egiteagatik beste Erkidegoan (Enbaxadan) erroldaturik dauden eskatzaileen kasuan EAeko Udal-Eroldan **baja data** ere jasota ekarriko du Errolda-egiaztagiriak. Horrez gain, goi-mailako ikasketak egiteagatik beste Erkidegoan erroldaturik dauden eskatzaileek hango Errolda-egiaztagiria (Enbaxadan alta data jasota dagokion egiaztagiria) ere aurkeztu beharko dute.
- Gainera, Europar Batasuneko herritar ez direnek, Egoitza Baimenaren kopia konpultsatua aurkeztu behar dute.
- 3.- 6.Orria "DATUEN ALTA/DOAKION HIRUGARRENA" inprimakian, eskatzailearen banku-datuak jarri behar dira, behin-behinekoak badira ere. Eskatzaileak Espainian dagoen banku bateko kontuaren titularra izan behar du. Oso garrantzitsua da inprimakia bete baino lehen atzealdean datozen betetzeko jarraibideak arretaz irakurtzea.

4.- Eskabidearekin aurkeztu behar den NANaren edo Europar Batasuneko NANaren balioak edo atzerrikoentzat Pasaportearen fotokopia "DATUEN ALTA/DOAKION HIRUGARRENA" inprimakiari grapatuko zaio.

5.- 2.Orria-Eskabiderako Laburpen inprimakian, zein arlotan ebaluatua izan nahi duzun aukeratu behar duzu. Gogoratu arlo bakarria aukera daitekeela:

1. Alorra	Molekulen eta Zelulen Biologia eta genetika
1. bis Alorra	Biofisika, Biokimika, Bioteknologia, Mikrobiologia, Inmunologia eta Biologia.
2. Alorra	Animalien Biologia, Landareen Biologia, Ekologia, Biologia Aplikatua, Ingurumena, eta Antropologia Fisikoa.
2. bis Alorra	Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zientziak, Albaitaritza, Zooteknia, Arrantza Teknikak eta Baso Ustiapenak.
3. Alorra	Osasun Zientziak, Giza Biologia, Zientzia Klinikoak, Epidemiologia, Medikuntzako eta Kirurgiako Espezialitateak (Psikiatria salbu), Farmakologia, Giza Fisiologia, Prebentzio Medikuntza, Osasun Publikoa.
3. bis Alorra	Elikagaien Teknologia, Bromatologia eta Elikadura Zientziak.
4. Alorra	Matematika eta Estatistika.
5. Alorra	Zientzi Fisikoak, Astrofisika, Astronomia eta Elektronika.
6. Alorra	Kimika (Biokimika salbu) eta Ingeniaritza Kimikoa.
7. Alorra	Teknologiak (Bioteknologia eta Elikagaien Teknologia salbu), Ingeniaritzak (Ingeniaritza Kimikoa salbu).
8. Alorra	Geologia, Paleontologia.
9. Alorra	Informatika.
10. Alorra	Filosofia, Logika, Etika, Antropologia Filosofikoa eta Filosofiaren Historia.
11. Alorra	Historia (Artearen Historia eta Filosofiaren Historia salbu) eta Arkeologia
11. bis Alorra	Geografia fisikoa eta Giza Geografia.
12. Alorra	Arte Ederak, Artearen Historia, Musikologia, Arte Ederren Teoria, Analisia eta Kritika, Arkitektura.
13. Alorra	Hizkuntza, Literatura, Linguistika, Filologiak, Literaturaren Teoria, Analisia eta Kritika.
14. Alorra	Zuzenbidea, Zientzia Juridikoak eta Nazioarteko Harremanak.
15. Alorra	Ekonomia, Ekonometria, Teoria Ekonomikoa, Sistema Ekonomikoak.
16. Alorra	Soziologia, Zientzia Politikoak eta Antropologia Kulturala.
17. Alorra	Kazetaritza eta Informazio Zientziak.
18. Alorra	Psikologia, Psikopatologia, Psikiatria, Pedagogia eta Didaktika.

6.- Elkarrizketa euskaraz egin nahi baduzu, ez ahaztu 2.Orria-Eskabiderako Laburpen inprimakian adierazi behar duzula. Kontuan hartu, Berriazko Aholku Batzordea osatzen duen inork, eskatzaileak aukeratutako hizkuntz ofiziala menperatuko ez balu, aldibereko itzulpena egingo dela.

7.- 3.Orria-Espediente akademikoa inprimakia

Zuk duzun espediente akademiko motaren arabera, irakasgaiekin, notekin eta, hala badagokio, kedituekin, bete beharko duzu ondorengo inprimaki-eredu bat edo gehiago:

- 3.1 Orria-BERRITU EZ DIREN PLANAK (krediturik gabeko irakasgaiak)
- 3.2 Orria-PLAN BERRITUAK (kreditudun irakasgaiak)
- 3.3 Orria-ERASMUS (krediturik gabeko eta kedituekin irakasgaiak)
- 3.4 Orria-ATZERRIKO ZENTRUKO ESPEDIENTEA

Azkenean, ondorengo inprimakian jasoko dira laburbilduta espediente akademikoaren datuak:

- 3.5 Orria- ESPEDIENTE AKADEMIKOA LABURPEN-INPRIMAKIA

8.- Espediente Akademikoaren Batezbesteko Nota Kalkulatzeko

Espediente akademikoaren batezbesteko nota kalkulatzen gaituzten ikasgaien noten batezbesteko ponderatua kalkulatu da bi dezimalekin. Karrerako azken urteko ikasleek, eskabidea aurkezterakoan gaituzten ikasgaiekin kalkulatu dute eta eskabidearen ebaluaketarako kontutan hartuko den batezbestekoa hau izango da eta ez karrera bukaerakoa.

Espediente akademikoko batezbesteko nota kalkulatzen orduan, irakasgai edo kreditu baliokidetuak edo egokituen kasuetan jatorrizko zentroetan irakasgai horietan lortutako nota zenbatuko da dokumentalki akreditatuta gelditzen bada. Horrela ez bada, aprobaturat hartuko dira. Horrez gain, ez dira kontutan hartuko eskatutako tituluak lortzeko ezinbestekoak ez diren irakasgaiak (adibidez: borondatezko irakasgaiak, 2. zikloko beste espezialitate bateko irakasgaiak, gradu-azterketaren nota, etab.). Espediente akademikoan kredituzko irakasgaiak baldin badaude batezbesteko notan irakasgai horien pisu espezifikoa isladatuko da. Hots, espediente akademikoaren batezbesteko notan kredituzko irakasgaiak hartuko dute parte bakoitzak duen kreditu-kopuruen arabera.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileek espediente akademikoaren batezbesteko nota kalkulatu dute ziurtagiri akademikoaren kalifikazioetatik gure sistema hamartarreko kalifikazio baliokideetara bihurtuta eginez, eta gero gainontzeko eskatzaileek bezala batezbestekoa kalkulatu.

Batezbesteko nota kalkulatzeko, irakasgaien kalifikazioen arabera, erabiliko diren balorazioak honako hauek izango dira:

Ohorezko matrikula batengatik (berariazko aipamena)....	4 puntu
Bikain batengatik (9tik 10ra).....	3 puntu
Oso Ongi batengatik (7tik 8,99ra)	2 puntu
Nahikoa batengatik (5etik 6,99ra).....	Puntu bat

ERASMUS programan parte hartu dutenek formula honekin kalkulatu dute espediente akademikoaren batezbestekoa:

$$\frac{(A \times C) + [(B + 1) \times D]}{C + D}$$

Giltzarriak:

- A: gaituzten ikasgaien/Kredituen batezbesteko ponderatua, ERASMUS programakoak izan ezik.*
B: ERASMUS programako gaituzten ikasgaien/Kredituen batezbesteko ponderatua.
C: Kurtso/Kreditu kopurua, ERASMUS programakoak izan ezik.
D: ERASMUS programako kurtso/Kreditu kopurua.

Ondoko taulan zure Espediente Akademikoaren batezbesteko nota eta sistema hamartarrerako konbertsioa kalkulatzeko adibide batzuk aurki ditzakezu:

1.- BERRITU EZ DIREN PLANAK (KREDITURIK GABEKO IRAKASGAIK):

30 irakasgai ikasi eta gainditu badira, banaketa honako hau delarik: 3 Ohorezko matrikula, 5 Bikain, 10 Oso ongi eta 12 Nahikoa, espediente akademikoaren batezbesteko ponderatua honako hau izango da:

$$\text{Batezbesteko Ponderatua} = \frac{(3 \times 4) + (5 \times 3) + (10 \times 2) + (12 \times 1)}{30} = 1,97$$

2.- PLAN BERRITUAK (KREDITUZKO IRAKASGAIK):

30 irakasgai ikasi eta gainditu badira, banaketa honako hau delarik: 3 Ohorezko matrikula guztira 20 kreditu, 5 Bikain guztira 40 kreditu, 10 Oso ongi guztira 70 kreditu eta 12 Nahikoa guztira 100 kreditu, espediente akademikoaren batezbesteko ponderatua honako hau izango da:

$$\text{Batezbesteko Ponderatua} = \frac{(20 \times 4) + (40 \times 3) + (70 \times 2) + (100 \times 1)}{(20 + 40 + 70 + 100)} = 1,91$$

3.- ESPEDIENTE AKADEMIKO BITARIKOA BERRITU EZ DIREN PLANAK ETA BERRITUAK (KREDITUZKO ETA KREDITURIK GABEKO IRAKASGAIK):

Espediente Akademikoan kredituzko zein krediturik gabeko irakasgaiak badaude, kredituzko irakasgaien batezbesteko ponderatua eta krediturik gabekoena, zein bere aldetik, kalkulatu beharko dira, goiko adibideetan bezala, eta gero ondorengo adibidean bezala jardungo da :

Alde batetik guztira 150 kreditu dituzten 20 irakasgaiak badira, kreditu horien batezbesteko ponderatua 1,90 izanik, eta bestetik 10 krediturik gabeko irakasgai badira, irakasgai hauen batezbesteko ponderatua 1,70 izanik, eta 10 irakasgai horiek 80 kreditu adaptaturen bestekoa izanik, espediente akademikoaren batezbesteko ponderatua honako hau izango da:

$$\text{Batezbesteko Ponderatua} = \frac{(150 \times 1,90) + (80 \times 1,70)}{(150 + 80)} = 1,83$$

4. ESPEDIENTE AKADEMIKO ERASMUS IRAKASGAIEKIN:

Espediente akademikoan Erasmus irakasgaiak ere badaude, Erasmus irakasgaiak ez diren batezbesteko ponderatua (A) eta Erasmuskoena (B), zein bere aldetik, kalkulatu beharko dira, goiko adibideetan bezala, eta gero ondorengo adibidean bezala jardungo da :

Erasmuskoak ez diren 25 irakasgai baditugu, batezbesteko ponderatua (A) 1,70 izanik, eta bestetik Erasmusko 5 irakasgai baditugu, batezbesteko ponderatua (B) 1,60 izanik, espediente akademikoaren batezbesteko ponderatua honako hau izango da:

$$\text{Batezbesteko Ponderatua} = \frac{(25 \times 1,70) + [(1,60 + 1) \times 5]}{(25 + 5)} = 1,85$$

5.- ESPEDIENTE AKADEMIKOAREN KONBERTSIOA:

Nota altuena 10 eta aprobatua 5etik aurrera duen kalifikazio sistemara sistema hau erabiltzen ez duten espediente akademikoaren kalifikazioen konbertsioa egiteko honako algoritmo hau erabiliko da :

$$\text{Lortzeko nota } 10 \text{ oinarrian} \quad X = \frac{5}{M-m} (N-m) + 5$$

X: Lortu nahi den nota 10 oinarrian.

M: Espediente akademikoaren kalifikazio sisteman lor daitekeen nota altuena .

m: Espediente akademikoaren kalifikazio sisteman zeinetik aurrera aprobatuzat hartzen den den nota.

N : Espediente akademikoaren kalifikazio sisteman irakasgaien lortutako nota.

Espediente Akademikoko irakasgai batek 15 (N) puntuko nota baldin badu, ikasketak egin diren herrialdearen sisteman lor daitekeen notarik altuena 20 (M) puntu izanik eta aprobatuak 10 (m) puntutik aurrera hasiz, kalifikazio hori 10 oinarrian izango da:

$$X = \frac{5}{20-10} (15-10) + 5 = 7,5 \text{ OSO ONGI (2 PUNTU)}$$

9.- kontuan hartu, Ezarpen Zentruko onarpen agiria jatorrizkoa izan behar dela, dagozkion izenpeekin, deialdiko Aginduan ezartzen den arabera.

10.- Ikertzaileen Prestakuntzari buruzko txostenari dagokionez (gehienez 3 orrialde), honakoak adierazi beharko dira bertan: ikastetxea, aukeratutako ikasketa-programa (ikastaroak eta irakasgaiak; hasiera- eta bukaera-datak; kalitate-aipamena, halakorik izanez gero; etab.), ikastaroetan parte hartuko duten irakasleak eta ikertzaileak (horien partaidetza duten ikerketa-proiektu edo kontratuen aipamen laburra; beren ekarpen zientifiko aipagarrienak, azken bost urteotan bideratutako tesi-kopurua). Txostenak ikasketa-programaren zuzendariak ontzat emanda egon behar du.

11.- Ikerketa-proiektuaren txosten laburrari dagokionez (gehienez 3 orrialde), honakoak adierazi beharko dira bertan: proiektuaren izena, deskribapena (helburuak, zientzia aldetik eta gizarte aldetik duen interesa, aurikusitako lanak) eta oinarriko bibliografia. Proiektuaren zuzendariaren oniritzia (jatorrizkoa) aurkeztu behar da, eta oniritzi hau txostenaren orri guztietan agertzea gomendagarria da.

12.- 5.ORRIA-IKASKETEN PROGRAMAREN ZUZENDARIAREN DATUAK ETA PROIEKTUAREN ZUZENDARIARENAK inprimaki normalizatuan

Ikasketen Programaren Zuzendariaren eta Proiektuaren Zuzendariaren Curriculum Vitaeak aurkeztu behar dira, eta, balegokio, kozuzendariarena ere, 5. Orrietan jasotzen diren ereduak jarraituz eta kasu bakoitzean erabili behar den espaziora egokituz. Zuzendariak (kozuzendariak) sinatu behar dituzte lehenengo orrian, curriculum vitae errefrendatzeko dilligentzia, eta gainerako orri guztien alboetan. Curriculumak jasotzeko 5. orria behar bestetan fotokopiatuko da.

13.- Gainera, atzerirako laguntzetarako (AK):

A.- Eskatzaileak egindako matrikula gastuen estimazioa (tasa akademikoak bakarrik) eta estimazio hori bermatzen duen dokumentazio ofiziala (dokumentazio horretan programa bat baino gehiago baldin badator, aukeratutakoa nabarmenduta geldituko da). Zenbatekoa 2.Orria-Eskabiderako Laburpen inprimakian idatziko da dagozkion laukitxoan. Matrikula azalpen batek baino gehiagok osatzen badute, estimazio dokumentuan azalpen bakoitzaren adierazpena emango da.

B.- Berariazko Aholku Batzordeak, eskatzailea abiatuko den herrialdeko hizkuntzan egin ahal izango du elkarrizketa.

10.- Eskabideen ebaluazioak Aholku-Batzorde Espezifikoekin elkarrizketa pertsonal bat egitea dakar. Elkarrizketa, presentziala izango da eta irailean burutuko da. Eskabide inprimakian zehazten den helbidera bidaliko den eskutitz baten bidez, eskatzaile bakoitzari elkarrizketara deituko zaio, eguna, tokia eta ordua zehaztuz. Eskatzailea elkarrizketara aurkeztzen ez bada, arrazoa zeinahi izanda ere, eskarian atzera egindatzat hartuko da eta esleipen prozesutik at geldituko da.